

|                |                                 |                        |         |
|----------------|---------------------------------|------------------------|---------|
| <b>Organoa</b> | <b>Euskaraldia Batzordea</b>    | <b>Bilera-zenbakia</b> | 2020/03 |
| <b>Eguna</b>   | <b>2020/11/26</b>               | <b>Hasiera-ordua</b>   | 18:30   |
|                |                                 | <b>Amaiera-ordua</b>   | 19:30   |
| <b>Tokia</b>   | <b>Maria Agirre batzar gela</b> |                        |         |

### Bertaratutakoak

Estiñe Astorkia – **Euskara Zerbitzua (Hitzargune programako koordinatzailea)**

Josu Erkiaga – **Aita Villasante Udal Euskaltegia**

Goizalde Gezuraga – **Barrutialde Institutua**

Pili Ibarra – **Berbalagun eta AEK**

Pernando Basterretxea – **Busturialdean Euskaraz Bizi**

Ager Zallo – **Maier**

Itxaso Vazquez – **Artez enpresa (Hitzargune)**

Lourdes Madariaga – **Gernika Institutua**

Garbiñe Mirandona – **Allende Salazar ikastetxea**

Rakel Etxeandia – **San Fidel ikastola**

Xabier Goiria – **URE Urdaibai Rugby Eskola**

Bittor Zarrabeitia – **Euskara Zerbitzuko teknikaria (Batzordeko idazkari lanetan)**

### Ezin etorria adierazi dutenak:

Iñigo Magunagoikoetxea – **Euskara zinegotzia**

Leire Garatxena - **Euskaraldiko dinamizatzailea**

Ainara Artetxe – **Seber Altube ikastola**



## GAI-ZERREDA

- 1.- IZEN-EMATEAREN EMAITZAK eta egindakoaren berri ematea.
  - 2.- Abenduaren 3rako (irakurraldia) eta 4rako (Euskaraldiaren amaiera) antolaketa zehaztea.
  - 3.- BAKOITZAK LEKARKEENA
- 

### 1.- IZEN-EMATEAREN EMAITZAK ETA EGINDAKOAREN BERRI EMATEA.

Batzordeko idazkariak datuak eman ditu:

- **Izena eman duten entitateak 97 izan dira.** Horien argazkiekin Artekalean dauden paneletako argazki erakusketara eratu da. Abenduaren 4an eta hurrengo egunetan "agiri/diploma" bat banatuko zaie izena eman duten entitateei, euren konpromisoa eskertzeko.
- **Izena eman duten norbanakoak 2.703 izan dira.** Balorazio oso positiboa egiten da, kontuan izanik 2018ko Euskaraldian 3.197 izan zirela, baina orduan inguruko herri txikietakoek Gernika-Lumon eman zuten izena. Oraingoan, oster, inguruko herriek izena eman dute eta bertan inskribatu dira bertakoak.

Izen ematearekin lotuta **mailing-ari ekin zaio**, lehenengo bi mezuak 2018ko zerrendatik eta gero aurtengo zerrendatik berau osatu ahala. Horrela, izena eman dutenak informatuta mantendu nahi izan ditugu (epeak, txapa banaketa, banderolena, egitaraua,...). Horrez gain, unean uneko **oharrak** jarri dira atarietan eta **kartelak** kaleratu dira (izen-ematea, Euskararen Egunerako/Euskaraldirako egitaraua,...). **Bi pankarta** haundi ere jarri dira (Kultura Etxean eta Gernika Gogoratuz zentroan).

Bestalde, Euskararen Eguna eta Euskaraldia biak aintzat hartuta, kartel bakarra atera da **egitarau berezi batekin (1. Eranskina)**. Jakina, bizi dugun egoera bereziak baldintzatu egin ditu jarduerak, batzuk ohikoak eta beste batzuk berriak:



- **Streaming-aren egitaraua (2. Eranskina)** banatu da. Hurrengo egunetan egokipenak izan ditzake egitarau horrek, baina nagusiki zer egin den eta zer egingo azaldu da.  
Estiñe Astorkiak proposatu du “berakatz zopa” plataformaren streaming-ean parte hartu dutenei orogarriren/agiriren bat ematea Euskaraldiko Batzordearen izenean eta ontzat eman da proposamena.  
Partaidetza aldetik denetarikoa dago (elkarteak, autonomoak, partikularrak) eta gizarte esparru desberdinetakoak (lan mundua, kirola, ostalaritza, aisialdi, hezkuntza, ahotsak.eus-eko nagusien grabazioak,...).
- Batzar egun honetan zehar Ekin diote Hitzarguneko arduradunek **Bai Euskarari Ziurtagiria banatzeari**, agiriarekin batera pack bat oparituz (pegatinak, musukoak,...). Banaketarekin batera argazkiak atera dira, gero bestelako zabalkundea egin ahal izateko, eta elkarriketak ere egingo dira helburu berberarekin. Ziurtagiri banaketaren aitzakiarekin Arteakalean dauden paneletako bat ere apaindu da kartel berezi batekin.
- **Euskal Lorratzak** deituriko ekintza bertan behera geratu bada ere, sare sozialetarako grabaketak prestatu dituzte SOME-koek eta streaming-ean ere parte hartuko dute. Honekin lotuta esan behar abenduaren 4ko amaiera ekitaldian SOME-k ez duela parte hartuko, larrialdi egoera dela-eta jendaurreko ekitaldirik ez egitea ebatzita dutelako.

## 2.- ABENDUAREN 3RAKO (IRAKURRALDIA) ETA 4RAKO (EUSKARALDIAREN AMAIERA) ANTOLAKETA ZEHAZTEA.

Aktaren **2. Eranskinean** dago adostutako kronograma eta aztertu diren puntuetatik hurrengoak azpimarratu daitezke:

- **Abenduaren 3ko “11 orduko irakurraldia”**.- Pili Ibarra aritu da antolaketaren gora-beherak azaltzen. Karmele Jaioren “Aitaren etxea” hartu da irakurgai eta irakurleen hurrenkeraren berri eman du. Bestalde, 11 ordukoa 5 orduko bihurtu da eta barrualdean egin beharrean Foru Plazan egingo da. Jarduera ondo antolatu beharko da, segurtasun neurriak hartuta: distantziak, irakurle bakoitzari babesa eskaintzeko mikrofonoak eta abarrak garbi mantenduz.



Argazki erraldoia aterako da jendea plazan dagoela sakabanatuta. Amaitzeko, bolanderak.

- **Abenduak 4** (Euskaraldiaren amaiera).- Ekitaldi jendetsurik ezin izango denez antolatuta, hona hemen egingo dena:
  - Xaiborren kamioiarekin Euskaraldiaren amaiera iragarri herrian zehar (arratsaldeko 6:etatik (:00etara).
  - 19:00etan, Foru Plazako taulatuan adierazpena irakurtzea; jarraian, bertsoak edo abeslariren batek akustikoan kanta pare bat eskaintzea. Irakurketarako belarriprest bat (Josu Erkiagak adierazi du ikasle bat daukatela prest) eta ahobizi bat izendatzea (bildutakoek ebatzi dute Kristina Arana Kultur Etxeko zuzendariari proposatzea, ordezkatzeko duen erakundeagatik eta Jose Antonio Arana bere aita gogoan). Azkenean, txupina.

### 3.- BAKOITZAK LEKARKEENA

Ez da apartekorik planteatu.

Gernika-Lumon, 2020ko azaroaren 26an.

Batzordeko idazkaria

Bittor Zarrabeitia



## 1. Eranskina





## E G I T A R A U A

### AZAROAREN 20tik ABENDUAREN 4ra

#### EUSKARALDIRAKO "STREAMING"-a

Zuzeneko egitarau digitala egunero lotura honetan: "euskaraldiagernikalumo"

YouTube Instagram

### AZAROAK 25

#### EUSKAL LORRATZAK

Aurtengoan kantaldia zuzenean ez, baina sare sozialetatik bai abiatuko da.

Antolatzailea: Segundo Olaeta Musika Eskola (SOME)

### AZAROAK 26/27

#### BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA

Ziurtagiri banaketa Gernika-Lumoko entitateei bi egunetan zehar.

Antolatzaileak: Ziurtagiriaren Elkarte eta Udaleko Euskara Arloa

### ABENDUAK 3 15:00 / 20:00

#### 11 ORDUKO IRAKURRALDIA

Foru Plazan. Etxeko gozotasunean sei ordu bakoitzak eta bost ordu elkarlanean, distantziak zainduta. Irakurgaia: Kamele Jaioren "Aitaren Etxea".

Antolatzailea: Gernika-Lumoko Berbalagun

### ABENDUAK 4 19:00

#### EUSKARALDIA 2020 AMAIERA

- Euskaraldirako izena eman duten entitateei agiri banaketa egunean zehar.
- Euskal Herri osorako adierazpenaren irakurketa Foru Plazan
- Segundo Olaeta Musika Eskolako taldeen musika saio neurtua.

Antolatzailea: Gernika-Lumoko Euskaraldia Batzordea

## 2. Eranskina





### Euskaraldiko streaming-a (egitaraua)

| EGUNA               | ORDUA                   | ZER                                                                                                              |
|---------------------|-------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| AZ 20<br>BARIKUA    | 12.00                   | HASIERA EKITALDIA: ONINTZA ENBEITA                                                                               |
| AZ 21<br>ZAPATUA    | 12.00                   | AINHO ASTUI. ZEINU HIZKUNTZA EMANALDIA                                                                           |
| AZ 22<br>DOMEKA     | 12.00                   | ROSS DANTZA ESKOLA. DANTZA FAMILIAN                                                                              |
| AZ 23<br>ASTELEHENA | 20.00                   | ZIHARA ARRASATE                                                                                                  |
| AZ 24<br>MARTITZENA | 20.00                   | SEGUNDO OLAETA MUSIKA ESKOLA.                                                                                    |
| AZ 25<br>EGUAZTENA  | 20.00<br>21.00          | JOSU GOIKO: POESIA ERREZITALDIA<br>AMAIA NABERAN. PINTURA.                                                       |
| AZ 26<br>EGUENA     | 18.45<br>20.00          | SEGUNDO OLAETA MUSIKA ESKOLA. MUSIKA EMANALDIA<br>SARA ITURRIARTE: TRIKITIXA EMANALDIA                           |
| AZ 27<br>BARIKUA    | 19:00<br>20.00          | ALEX URIARTE eta KEPA LUZARRAGA<br>HAIMAR, ALEX eta GAIZKA (GATIBU). MUSIKA EMANALDIA                            |
| AZ 28<br>ZAPATUA    | 12.00<br>16.00          | AINHO ASTUI. ZEINU HIZKUNTZA TAILERRA<br>MATXALEN BEZOS. POESIA ERREZITALDIA                                     |
| AZ 29<br>DOMEKA     | 12.00<br>16.00<br>20:00 | IRAIA MADARIAGA. IPUIN KONTAKETA<br>AHOTSAK<br>LAGUN ETXEA TABERNA. Sukaldaritza tailerra: Sandwicha bi eratara. |
| AZ 30<br>ASTELEHENA | 18.00<br>20.00          | JOSE. TESTIGANTZA<br>KALAPITAKA                                                                                  |
| AB 1<br>MARTITZENA  | 19:00<br>20.00          | Kantagunea                                                                                                       |
| AB 2<br>EGUAZTENA   | 20.00<br>20.30          | EULEUK. HITZALDI LABURRA<br>YUS PERSI: TESTIGANTZA                                                               |
| AB 3<br>EGUENA      | 15.00                   | 11 ORDUKO IRAKURRALDIA. "AITAREN ETXEA", KARMELE JAIO                                                            |
| AB 4<br>BARIKUA     | 19.00                   | AMAIERA EKITALDIA                                                                                                |